

Soietxeko kuartela ixteko eskatu dute Malatxak eta Eudimak

*Euskal Herriak jasaten duen
«militarizazioa» salatu dute Mungian*



NATXO ZALABARRIA

Manifestatzai-
leek Soietxeko
kuartelaren
aurrera
eraman zuten
Euskal Herria
desmilitariza-
tzeko eskaera.

Joseba Arruti / Mungia

Malatxa talde antimilitaristak eta Eudima udalen elkarteak Euskal Herriak bizi duen «militarizazioa» salatu zuten atzo *Herria herriarentzat, alde gure lurretatik* lelopean Mungian eta Meñakan egindako ekitaldi baten bitartez. Ehun lagun inguru Espainiako Armadak Soietxen duen kuartelaren aurrean bildu ziren, berau ixteko eskatuz.

«EUSKAL HERRIAREN desmilitarizazio prozesua euskal gizartea aktibatzen den neurrian gauzatuko» dela iritzita, Malatxa Euskal Herriaren desmilitarizaziorako kolektiboak eta Eudima elkarteak ekitaldi sorta antolatu zuten atzo Mungian eta Meñakan.

Arratsaldeko 18:15etan ehun lagun inguru bildu ziren Mungiako Foruen enparantzan, *Herria herriarentzat, alde gure lurretatik* lelopeko manifestazioan Soietxeko kuarteleraingo abiatzeko. Ordubete inguru geroago heldu ziren bertara, eta bost minutu eman zituzten kuartelaren aurrean, ejerzitoko zenbait kidek, kaputxatuta, filmatzen eta argazkiak ateratzen zizkieten bitartean.

Soietxeko kuarteletik, manifestatzaileak Meñakara abiatu ziren, bertan ekitaldi politikoa egitera. Ekitaldi horretan Malatxako Angel Lopezek eta Eudimako Fermin Villak hitz egin zuten.

Talde bien esanetan, «Mungialdea Euskal Herriko eskualderik zigortuenetakoa da militarizazioari dagokionez, eta indar polizial eta militar horiek dira egunero gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea ukatzen digutenak». Horregatik, «Euskal Esparru Demokratiko Nazionala osatze bidean, Euskal Herriak desmilitarizazio prozesu bat abian jartzeko beharra eta nahia dauka, Espainiako eta Frantziako ejerzitoen erretiratzea lortzeko».

Ekitaldi politikoa amaitu ostean jai giroa nagusitu zen, eta gauean Meñakan bildutakoek rock jaialdia izan zuten Skunk, Deskontrol eta Saka-Trik taldeen eskutik.

Aurten hainbat bisitari izango dogu Bizkaian




Eta zu?

*Bazter guztietatik datoz, gure alderdi ederren
bila... gure urietara... gure herrietara.*

*Eta gero ta gehiagok ederresten dabe guk
daukaguna; ondotxo dakielako lurralde hau
bakarra dala.*

Eta zu?



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia


Bizkaia
Turismo argia!